



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

**GOBERNU JUNTAK 2019.10.04an EGINDAKO
BILKURAKO AKTA**

LEHENDAKARIA

MAITE ANTON LENO

OÑATI

BOKALAK

GARAZI LARREA ZUMELAGA
UNAI ELKORO OIANGUREN
PILAR LENIZBARRUTIA BIZKARRALEGORRA
(ordezkoa)
MARIA UBARRETXENA CID
ANDER GARAY ZABALETA
MAITANE MUÑOZ GOICOECHEA
ARITZ MURUA ACHA
GORKA ARTOLA ALBERDI
AINHOA LETE ZABALETA
CRISTINA MARQUINA IGARZA
IRAITZ LAZKANO GARITAONANDIA
JOSU EZKURDIA SANTAMARIA (ordezkoa)
JUAN BENGUA PAGALDAY
IZARO ELORZA ARREGI
XABIER IGARTUA LOIDI (ordezkoa)

ANTZUOLA
ARETXABALETA

ARETXABALETA
ARRASATE
ARRASATE
ARRASATE
ARRASATE
BERGARA
BERGARA
BERGARA
ELGETA
ESKORIATZA
LEINTZ-GATZAGA
OÑATI
OÑATI

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA

BELEN TXINTXURRETA IPARRAGIRRE

JUNTAKO KIDE IZAN GABE ETORRIAK

ANDER ELORTONDO BERGARETXE

Behin behineko kontu-hartzailea



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Mankomunitatearen egoitzako bilera gelan, 2019ko urriaren 4an, 9:00etan, Mankomunitateko lehendakaria, Maite Anton Leno anderea, mahaiburu dela, Gobernu Juntaren bilkura berezia hasi da, goian aipaturikoak bertan direla.

Gai-zerrendako puntuak aztertzeari ekin aurretik, eta lehendakariaren aurrean, Gobernu Juntako kide gisa bere karguaz jabetu da Garazi Larrea Zumelaga, Antzuolako Udalaren ordezkari titularra, aipatu udalean ordezkarien arteko aldaketa bat izan baita. Pilar Lenizbarrutia, Josu Ezkurdia eta Xabier Igartua ordezkariak ere jabetu dira bere ordezkari karguez.

1.- Aurreko bilkurako akta onartzea

Gobernu Juntak aho batez ONARTU DU 2019ko irailaren 17an bere eraketarako egin zuen bilkurako aktaren zirriborroa.

2.- Informazio Batzordeak sortzea eta horien lehendakariak izendatzea

Mankomunitatearen Estatutuen 27. artikuluan jasotakoaren arabera, lehendakariak, ondorengo Informazio Batzordeak sortzea proposatu du:

1. Ingurumen Batzordea.
2. Garapen Ekonomiko eta Turismo Batzordea.
3. Pertsonal Batzordea.
4. Kontu eta Ogasun Batzordea.
5. Kirol Batzordea.

Lehendakariaren proposamen hau aho batez ONARTU DA.

Halaber, Gobernu Juntako kide hauek izendatzea proposatu du lehendakariak, informazio-batzorde horien lehendakari izan daitezen:

- 1.- Ingurumen Batzordea:
 - Maite Antón Leno.
- 2.- Garapen Ekonomiko eta Turismo Batzordea:
 - Garazi Larrea Zumelaga.
- 3.- Pertsonal Batzordea:
 - Maite Antón Leno.
- 4.- Kontu eta Ogasun Batzordea:
 - Gorka Artola Alberdi.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

5.- Kirol Batzordea:

- Garazi Larrea Zumelaga.

Lehendakariaren proposamen hau ere aho batez ONARTU DA.

Proposaturiko kideek beren karguak onartu dituzte.

Ondoren, Mankomunitate honetako kide diren udalei zera eskatzea ERABAKI DA: lehenbailehen izenda ditzatela Batzorde horiek osatu behar dituzten ordezkariak.

3.- Mankomunitateak beste erakunde batzuetan dituen ordezkariak izendatzea

- **MONDRAGON UNIBERTSITATEA eta DEBA BAILARAKO INDUSTRIALDEA, S.A.**

Lehendakariaren proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Honako ordezkari hauek izendatzea ondoren zehaztuko diren erakundeen organoetarako:

-

a) MONDRAGON UNIBERTSITATEA:

- Titularra: Maite Antón Leno.
- Ordezkoa: Garazi Larrea Zumelaga.

b) DEBA BAILARAKO INDUSTRIALDEA, S.A.:

- Garazi Larrea Zumelaga.

- **GIPUZKOAKO HONDAKINEN KONTSORTZIOA**

Mankomunitate honek Kontsortzioaren Batzar Nagusian izango dituen ordezkariak izendatzeari ekin zaio, eta hori Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa eratzeko Lankidetzaren Hitzarmenaren laugarren estipulazioan zehazturiko prozeduraren bidez.

Lehenengo botazioa egin da, eta hor Gobernu Juntako kide bertaratu bakoitzak bi hautagairen aldeko botoa eman du, emaitza honekin:

- Garazi Larrea Zumelaga: 8 boto.
- Maite Antón Leno: 8 boto.
- Unai Elkoro Oianguren: 7 boto.
- Maria Ubarretxena Cid: 4 boto.
- Ander Garay Zabaleta: 2 boto.
- Jose Ramón Zubizarreta Alegría: boto 1.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Emaitza hauekin akordio-proposamena egin da hiru hautagairik bozkatuenak izendatzea planteatzen duena:

- Garazi Larrea Zumelaga.
- Maite Antón Leno.
- Unai Elgoro Oianguren.

Azkenik, Gobernu Juntak, aipatu proposamena jarraituz, aho batez ondorengo ERABAKI DU:

- Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Batzar Nagusian Mankomunitate honen ordezkari izateko ondorengoak izendatzea:

1. GARAZI LARREA ZUMELAGA.
2. MAITE ANTON LENO.
3. UNAI ELKORO OIANGUREN.

4.- Gobernu Juntaren ohiko bilkuretarako egutegia

Aho batez ERABAKI DA Gobernu Juntaren ohiko bilkurak orokorrean hileko laugarren asteartean egitea, goizeko 9:30etan. Gobernu Juntaren hurrengo bilkurara 2019-2020rako egutegi zehatza ekarriko da. Dena den, hurrengo ohiko bilkura urriaren 29an, goizeko 9:30etan egitea erabaki da.

5.- Mankomunitateko bi Juntakideren dedikazio partziala onartzea eta ordainsariak zehaztea

Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzen dituenak, 75.1 artikuluan xedatzen du Toki Udalbatzetako kideek eskubidea izango dutela ordainsariak jasotzeko eta alta emateko Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean, beti ere, erabateko dedikazioko edota dedikazio partzialeko erregimenean dagozkien erantzukizunak gauzatzen badituzte.

Aipatu xedapenaren arabera, Gobernu Juntak, Unai Elgoro, Pilar Lenizbarrutia, Maria Ubarretxena, Ander Garay, Maitane Muñoz, Aritz Murua eta Josu Ezkurdiaren abstentzioarekin, ZERA ERABAKI DU:

1.- Ondorengo bi Juntakideen %50eko jardunaren dedikazioa onartzea, honako ordainsariarekin: 1.500 €ko ordainsari gordina hileko, 14 hiletan ordaintzekoa.

- Maite Antón Leno, Mankomunitateko lehendakaria eta Ingurumen eta Pertsonal Batzordeetako lehendakaria.
- Garazi Larrea Zumelaga, Garapen Ekonomiko eta Turismo eta Kirol Batzordeetako lehendakaria.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

2.- Gizarte Segurantzaren eta Mankomunitateak kontratatuta duen Bizi-eta Ezintasun Asegurua emango zaie alta, Mankomunitateak dagokien zenbatekoak ordainduz.

3.- Maite Antón Lenoren dedikazioa 2019ko urriaren 7tik aurrera izango da, eta Garazi Larrea Zumelagarena berriz, bere lan egoera Hezkuntza Sailarekin argitu bezain pronto.

6.- Itzulpen zerbitzua kontratazeko espedientea

Idazkariak itzulpen zerbitzua kontratazeko proposatutako baldintzen berri eman ondoren, Maria Ubarretxenak proposatu du itzulpen zerbitzu hau Foru Kontratazio Zentralaren bitartez kontratatzea.

Aho batez erabaki da gai hau mahai gainean uztea Foru Kontratazio Zentralaren bitartez kontratazeko aukerarik dagoen aztertu arte.

7.- Poltsa konpostagarri hornitzeko kontratazio espedientea

Ekoizle txiki eta handiek sortutako etxeko hondakinen zatiki organiko konpostagarria jasotzeko neurri desberdinetako poltsa konpostagarri hornitzeko prozedura ireki bidez bideratu den kontratazio espedientea ikusirik.

Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Bideratu den kontratazio-espedientea onartzea.
2. Gastua onartzea.
3. Kontratazio hau arautuko duten Administrazio Klausula Partikularren eta Baldintza Teknikoen Agiriak onartzea.
4. Dagokion esleitze-prozedura irekitzea.

8.- Aretxabaletan, Arrasaten eta Bergaran argiteri publikoaren instalazioak berritzeko IDAE-k eman beharreko maileguaren egoera

Idazkariak Aretxabaletan, Arrasaten eta Bergaran argiteri publikoaren instalazioak berritzeko IDAE-k eman beharreko maileguaren egoeraren berri eman du.

Jakinarazi du IDAE-ren Administrazio Kontseiluak, 2018ko urriaren 24ko ebazpen bitartez, Mankomunitate honi 863.563 €-ko mailegua ematea erabaki zuela.



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

Mankomunitate honek jasotako aipatu ebazpenaren jakinarazpenean argi eta garbi jasotzen dela ebazpen hau suntsiarazteko baldintza dela Mankomunitateak jakinarazpena jaso eta 3 hilabeteko epean lan hauek egiteko dagokion kontratazio espedienteak ez irekitzea eta urtebeteko epean kontratua ez formalizatzea.

Horrela, Mankomunitateak, epe hauek betetzeko, IDAE-ri emandako maileguaren onarpena jakinarazi ondoren, 2018ko abenduaren 18ko Gobernu Juntaren bileran, aipatu herrietako argiteria publikoaren instalazioak berritzeko zegokion kontratazio espedienteak onartu eta esleitze prozedura irekitzea erabaki zuela.

Esleipen prozedura tramitatu ondoren, 2019ko apirilaren 30eko lehendakartzaren ebazpen bitartez, TECUNI,S.A. enpresari esleitu zitzaioela aipatu kontratua, maiatzaren 29an sinatuz.

Ikusirik kontratua garatzeko bost hilabeteko epea 2019ko urriaren 28an bukatzen dela eta kontratatari ordaindu behar zaiola, eta oraindik ez dela maileguaren eskritura sinatu, Mankomunitateko lehendakariak IDAE-ko Zuzendari Nagusiari idatzi bat bidali diola beharrezko gestioak egiteko eskatuz berehala eskritura sinatzeko.

Mankomunitateak orain jakin duela Kataluñako Generalitat-ek administrazioarekiko auzi-errekurtso bat jarri zuela 2017an IDAEren aurka, mailegu hauen deialdia zela eta, bere eskuduntzak urratzeagatik, 4. Administrazioarekiko Auzien Epaitegi Zentralak errekurtso hau baietsiz. Estatuko abokatuak epai hau apelazioan errekurritu zuela, Auzitegi Nazionalako Administrazioarekiko Auzien Salak apelazio errekurtsoa ezetsiz. Azken epai honen aurka Estatuko abokatuak kasazio-errekurtso bat aurkeztu zuela Auzitegi Gorenak onartu ez zuelarik, Auzitegi Gorenaren azken auto hau 2019ko ekainaren 7koa delarik.

Maria Ubarretxenak jakinarazi du Arrasateko udalaren abokatuek gai hau aztertzen ari direla.

Gobernu Junta jakinean gelditu da, IDAE-ko Zuzendari Nagusiaren erantzunaren zain.

9.- Zabor tasak ezartzeko kosteei buruzko informazioa

Kontu-hartzaileak zabor tasa ezartzeko kostuen analisiei buruzko bere txostena azaldu du.

Gobernu Junta jakinean gelditu da.

10.- Lehendakartzaren ebazpenak

Lehendakariak ondorengo ebazpenen berri eman du:

19/38.- 19/08 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira LAUREHUN ETA HIRUROGEITA HIRU MILA ZORTZIEHUN ETA HAMALAU EURO ETA LAUROGEITA ZORTZI ZENTIMO (463.814,88 €).



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

19/39.- Mankomunitate honetako funtzionarioen Plantilako bi informatzaile-teknikari plaza lehiaketa-oposizio ireki bidez betetzeko hautapen prozesuan

- 1.- Onartutako eta baztertutako hautagaien behin behineko zerrenda onartzea.
- 2.- Epaimahai Kalifikatzaileko kideak izendatzea.
- 3.- Oposizio faseko lehen ariketa irailaren 17an, asteartean, goizeko 9:00etan, egingo da Mankomunitatearen egoitzan. (Nafarroa Etorbidea, 17.- ARRASATE)

19/40.- 19/09 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira BOSTEHUN ETA BERROGEITA BEDERATZI MILA EHUN ETA HIRU EURO ETA HIRUROGEITA HIRU ZENTIMO (549.103,63 €).

19/41.- Mankomunitate honetako pertsonal laboralaren Plantilako txofer-langileburu lanpostu bat barne promozioz eta lehiaketa-oposizio bidez betetzeko hautapen prozesuan

- 1.- Onartutako eta baztertutako hautagaien behin behineko zerrenda onartzea.
- 2.- Epaimahai Kalifikatzaileko kideak izendatzea.
- 3.- Oposizio faseko lehen ariketa 2019ko uztailaren 3an, asteazkenean, goizeko 9:00etan, egingo da Mankomunitatearen egoitzan. (Nafarroa Etorbidea, 17.- ARRASATE)

19/42.- 1.- HAZILAN POPV FSE 2014-2020 proiektuaren "Aktibatu" fasean enplegua bilatzeko konpetentzia pertsonalak eta sozio-laboralak lantzeko formazio ekintzak garatu eta emateko kontratua INNOBIDE, S.L. enpresari esleitzea urteko 8.250 €-ko prezioan, BEZik gabe.

2.- Aipatu enpresarekin dagokion kontratua sinatzea erabaki hau jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita 15 laneguneko epean.

3.- Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 62. artikulua betez, Koldo Azkoitia Zubizarreta, Garapen Agentzia Zerbitzuko arduradun teknikoak, izendatzea kontratu honen arduradun.

4.- Enpresa esleipendunak adierazitakoaren arabera, kontratu honen xede diren lanetan arituko diren langileei Langileen Estatutua aplikatuko zaie.

19/43.- 19/10 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira BERREHUN ETA HAMABI MILA HIRUREHUN ETA LAU EURO ETA BERROGEITA HAMASEI ZENTIMO (212.304,56 €).

19/44.- LEIRE PARRAK eskatutako umeak zaintzeko eszedentzia onartzea.

19/45.- Urtebetez luzatzea, 2017ko ekainaren 15ean BABESA SUZAI, S.A. eta SABICO SEGURIDAD, S.A. enpresekin sinatutako 1. eta 2. loteetako kontratu eratorriak suteen eta intrusioaren aurkako sistemen mantenu zerbitzua emateko.

19/46.- LEHENENGO.- "Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez gas naturalaren horniketa kontratatzekeo esparru akordiotik" eratorritako kontratua EDP COMERCIALIZADORA, S.A.U. enpresari esleitzea, esparru akordioa burutzea erabaki den baldintzetan.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

BIGARREN.- Baimentzea eta xedatzea EDP COMERCIALIZADORA, S.A.U. enpresaren alde, aurtengo ekitaldiari dagokion 6.500 euroko gastua, 1000.221.920.00.03 kontusailaren kargura.

19/47.- Eskolatzeko Osagarriko Programa antolatu, kudeatu eta garatzeko zerbitzua kontratatzeko lizitazio hau huts deklaratzeko.

19/48.- Eskolatzeko Osagarriko Programa antolatu, kudeatu eta garatzeko zerbitzua emateko

1. Bideratu den kontratazio-espeditze berria onartzea, presazkoa deklaratzeko.
2. Gastua onartzea.
3. Kontratazio hau arautuko duten Administrazio Klausula Partikularren eta Baldintza Teknikoen Agiriak onartzea.
4. Dagokion esleitze-prozedura irekitzea.

19/49.- Iosune Iribar Manterolak aurkeztutako erreklamazioa ez onartzea, alegatutako farmazian lizentziatura titulua ez delako prozesu honetan parte hartzeko 4.c) oinarrian eskatzen diren tituluak bat, ez da baliokidea ere.

4.c) oinarrian eskatutako tituluak honako hauek dira: Ingurumen Zientzia, Biologia, Kimika, Geologia eta Ingurumenarekin lotutako Ingeniaritza gradua.

Behin betikotzat jotzea Mankomunitate honetako funtzionarioen Plantilako bi informatzaile-teknikari plaza lehiaketa-oposizio ireki bidez betetzeko hautapen prozesuko 2019ko ekainaren 11ko 109 zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako onartutako eta baztertutako izangaien behin behineko zerrendak.

19/50.- 19/13 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira LAUREHUN ETA ZAZPI MILA BERREHUN ETA HIRUROGEITA HAMABI EURO ETA HIRUROGEITA HAMASEI ZENTIMO (407.272,76 €).

19/51.- 19/12 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira BOST MILA BOSTEHUN ETA BERROGEITA HIRU EURO ETA HAMASEI ZENTIMO (5.543,16 €).

19/52.- 19/15 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira EHUN ETA HIRUROGEITA HAMABOST MILA ZORTZIEHUN ETA LAUROGEITA HAMAZORTZI EURO ETA LAUROGEITA HAMABI ZENTIMO (175.898,92 €).

19/53.- ARIZMENDI KOOP. ELKARTEAri hamar laneguneko epea ematea, Mankomunitatearen errekerimendu hau jaso eta biharamunetik kontaktatu hasita, Administrazio Klausula Berezien Pleguaren 17. klausulak, 5. atalean, jasotako dokumentazioa aurkezteko.

Kontratu honen esleipena, dokumentazioa jaso ondorengo hiru lanegunen barruan egingo da.

19/54.- 1.- Eskolatzeko Osagarriko Programa antolatu, kudeatu eta garatzeko kontratua ARIZMENDI KOOPERATIBA ELKARTEAri esleitzea urteko 72.500 €-ko prezioan.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

2.- Aipatu enpresarekin dagokion kontratua sinatzea erabaki hau jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita 8 laneguneko epean.

3.- Sektore Publikoko Kontratuaren azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 62. artikulua betez, Koldo Azkoitia Zubizarreta, Garapen Ekonomikorako Agentzia Zerbitzuko arduradun teknikoa, izendatzea kontratu honen arduradun.

3.- Enpresa esleipendunak adierazitakoaren arabera, kontratu honen xede diren lanetan arituko diren langileei *“Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ikastolen hitzarmen kolektiboa”* aplikatuko zaie.

19/55.- J.R. langileari eskatutako ordaindu gabeko 3 asteko baimena ematea, abuztuaren 10etik irailaren 1era arte.

19/56.- 19/16 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira HIRUREHUN ETA BERROGEITA BAT MILA SEIEHUN ETA HOGEITA HAMAIIKA EURO ETA LAUROGEI ZENTIMO (341.631,80 €).

19/57.- Mankomunitateak bildutako etxeetako hondakin arriskutsuak kudeatzeko HONDAKIN, S.L. enpresarekin 2017ko irailaren 8an sinatutako kontratua beste bi urtez luzatzea, hau da, 2021eko irailaren 7ra arte.

19/58.- 19/17 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira LAUREHUN ETA BERROGEITA HEMERETZI MILA ETA LAUROGEITA BAT EURO ETA HIRUROGEITA BI ZENTIMO (459.081,62 €).

19/59.- 19/18 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira HAMAIIKA MILA EHUN ETA HIRU EURO ETA HAMAIIKA ZENTIMO (11.103,11 €).

19/60.- Mankomunitate honek 2017ko irailaren 25ean sinatu zuen ARREGI ETXABE JUAN JOSE, S.A. enpresarekin papera eta kartoia saltzeko kontratua urtebetez luzatzea, hau da, 2020ko irailaren 30era arte.

19/61.- Debagoieneko Gurutze Gorriarekin 2016ko irailaren 28an sinatutako hitzarmena beste urtebetez luzatzea, hau da, 2020ko irailaren 27ra arte.

Gurutze Gorriak eskatutako gela aldaketa era iraunkor batean ez onartzea, Mankomunitateak berak behar duelako, baina libre dagoenean erabiltzeko aukera ematea.

11.- Galde-erreguak

Ez dago galde-erregurik.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 10:30etan, bukatutzat eman da bilkura.

LEHENDAKARIA

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA